PRIMERAN!

Euskara ikasteko metodoa

aek HADE

# Primeran B1: Lan Koaderno Digitalak

*Nola bihurtu ariketa digital multzo bat jardun-bikorako baliabide, elkar-lana ardatz hartuta.*

# Primeran B1


B1
IKASLEAren liburua
PRIMERAN!
Euskara ikasteko metodoa
aek HADE
B1
LAN-koadernoa
PRIMERAN!
Euskara ikasteko metodoa
B1
IRAKASLEAren liburua
PRIMERAN!
Euskara ikasteko metodoa
aek HADE
B1
IKUS-ENTZUNEZKOAK
PRIMERAN!
Euskara ikasteko metodoa

# LKD (lehenengo bertsioa)



# LKD (bigarren bertsioa)

**01- TRUKATU ETXEAK**

Oporretara joan ahal izateko beste etxe bat eskainiko duzu trukean.

Aztertu proposamena

Idatzi eskaintza

*ESKATU XEHETASUNAK*

*Sar zaitez, handik bizpahiru egunetara, forora. Ikusi ikaskideen iragarkiak. Aukeratu **bi iragarki**, eta bidali **erantzuna** xehetasun gehiago eskatzeko. Erantzun, jakina, zuri bidalitakoei.*

***Aurrez aurreko saioan egitekoa:** Bikoteka jarri eta azaldu elkarri zuen eskaintza. Behin azaldutakoan, bikoteak aldatu (denok denekin egin arte). Azkenik, bakoitzak egokiena iruditzen zaion eskaintza aukeratu eta besteei azalduko die.*

**02- HAIEK GARAIAK, HAIEK!**

Atzera begira jarri, eta taldeko ibileren mapa osatuko duzue denon artean.

Haiek garaiak, haiek!

Nola osatu taldeko ibileren mapa

Osatu mapa

*ERREPASATU TALDEKO IBILEREN MAPA*

***Aurrez aurreko saioan egitekoa:** Mapa zabaldu, egindakoa errepasatu, eta datu gehiago gehituko dizkiozue.*

**03- EZ NAIZ EL ROMPIDORA ITZULIKO**

Esperientzia txarra edukitako opor-leku batera ez bueltatzeko erabakia **azaldu** eta **arrazoituko** duzu ahoz.

Ez naiz El Rompidora itzuliko

*ADOS AL ZAUDE BESTEEK ESANDAKOAREKIN?*

*Egun batzuk pasa ondoren, itzuli forora. Entzun arretaz besteek esandakoak. Aukeratu mezu pare bat (edo gehiago) eta bota erantzuna zure iritzia azaltzeko.*

***Aurrez aurreko saioan egitekoa:** Azaldu elkarri aipatutako esperientziak, eta erantzun galdera: **Zer egin dezakegu hemendik aurrera horrelakorik ez gertatzeko?***

# Baldintzak

- Moodle estandarra.
- Paperean egindako aurre-diseinuaren aldaera.
- Lau orduko iraupena (koaderno bakoitzak).
- Nork bere kabuz erabiltzekoa.
- Instrukzio argiak.
- Nabigazio arina.
- Diseinu erakargarri baina sinplea.

# Elkar-lana sustatzeko

## 04. ZEIN DIRA HISTORIAKO MUSIKARIRIK ONENAK?

Nazioarteko musikari onenen, eta gehien maite dituzuen euskal kantuen zerrendak osatuko dituzue.

Zein dira historiako musikaririk onenak?

Gehien estimatzen ditugun euskal musikariak

*OSATU TALDE-ZERRENDA*

***Aurrez aurreko saioan egitekoa:*** *Adostu euskal kantuen zerrenda. Ondoren, partekatu Spotify edo Youtube erabiliz.*

Partekatu kantu-zerrenda

*BIDALI ZERRENDA LAGUNEI*

*Elkarbanatu kantu-zerrenda zure lagunekin. Horretarako, bidali zerrendaren lotura, e-posta, Whatsapp edo sare-sozialak erabiliz. Argitaratu euskaltegiko blogean ere.*

# Eskolekin lotura

### 02- HAIEK GARAIAK, HAIEK!

Atzera begira jarri, eta taldeko ibileren mapa osatuko duzue denon artean.

Haiek garaiak, haiek!

Nola osatu taldeko ibileren mapa

Osatu mapa

*ERREPASATU TALDEKO IBILEREN MAPA*

***Aurrez aurreko saioan egitekoa:*** *Mapa zabaldu, egindakoa errepasatu, eta datu gehiago gehituko dizkiozue.*

# Erronkak

- Elkar-lan asinkronikoa kudeatzea.
- Hasierako erabiltzaile-profila (baliabide digitalak).
- Bakarkako lanaren eta eskoletan egin beharrekoaren arteko lotura (etxeko lanak).
- Moodlez kanpoko baliabideak/guneak erabiltzea (erabilera politikak aldatzea...).
- Lan egiteko modu ezberdinek eragin dezaketen nahasmena.